

4/2020 EBAZPENA, irailaren 21koa.

RESOLUCIÓN 4/2020, de 21 de septiembre.

PRESIDENTEA: María Barrena Ezcurra.

PRESIDENTA: María Barrena Ezcurra.

MAHAIKIDEA: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

VOCAL: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

IDAZKARIA: Iñigo Alvear Lekue

SECRETARIO: Iñigo Alvear Lekue

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordeak, arestian aipatutako kideek osatua dagoenak, EBAZPEN hau eman du

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente RESOLUCIÓN ante la denuncia formulada por

aurkeztutako salaketaren aurrean. Txostengilea Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia andrea izan da eta Batzordearen iritzia adierazi du.

Actúa como ponente Dña. Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia, quien expresa el parecer de la Comisión

#### EGITATEZKO AURREKARIAK

#### ANTECEDENTES DE HECHO

2020ko abuztuaren 27ko idazkiaren bidez, salaketa aurkeztu zuen Batzorde honetan, honako termino hauetan:

Mediante escrito de 27 de agosto de 2020, formuló denuncia ante esta Comisión, en los siguientes términos:

"Nire izena da, NANA dut, eta salatu nahi dut Barrikako 1. poligonoko 046 partzelan, 2020ko abuztuaren 27an, jabeek legez kanpoko hondakin kutsagarriak isuri dituztela detektatu dutela; hondakin horiek sastraken azpian ezkutatuta daude, eta amiantoa dute. Dokumentazio grafikoa erantsi da.

"Mi nombre es , con DNI y procedo a denunciar que en la parcela 046 del polígono 1 del municipio de Barrika con fecha 27 de agosto de 2020 se ha detectado, por los propietarios, un vertido de escombros ilegal contaminante oculto bajo maleza que contienen amianto. Se adjunta documentación gráfica.

Dirudienez, hondakinak Barrikako udalerriko 1. poligonoko 158. lurzatian zegoen antzinako etxola batekoak dira, eta horri buruzko gaur egungo dokumentazio grafikoa erantsi da.

Los escombros parece que pertenecen a una antigua caseta que se encontraba en la parcela 158 del polígono 1 del municipio de Barrika de la cual se adjunta documentación gráfica actual.

Premiazko eta berehalako esku-hartzea eskatzen dut, isurketa hori kentzeko, kutsadura saihesteko, ez bakarrik ingurumenerako, baizik eta

Solicito una intervención urgente e inmediata por parte de las para la retirada de dicho vertido para evitar una contaminación no sólo ambiental sino también para la salud ya que



osasunerako ere, amianto duelako."

contiene amianto."

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**LEHENENGOA**- Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikulua bidez sortu zen.

**PRIMERO**- La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

Foru Arau honen 29.1.1 artikulua arabera, 2. artikulua lotuta, biak ala biak foru-arau honi datxezkiola, Erreklamazio Batzordeak eskumena izango du Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-erakunde autonomiadunen, foru-enpresen erakunde publikoen, foru-merkataritzako sozietateen, foru-fundazioen eta foru-partzuergoen eta zuzenbide publikoko beste foru-erakunde batzuen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ukatzearen aurkako erreklamazioak ebazteko.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamenduak, uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak, bere 18. artikuluan ezartzen du, besteak beste, Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela:

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión:

"i) Gardentasunaren araudia hausteagatik egiten diren salaketak jaso eta, hala badagokie, izapidetzea. Beharrezkoa denean (kontuan harturik kasuan-kasuko arau-haustearen larritasuna eta horri buruzko txostena eginik), eskumena daukan organoari eskatzea diziiplina-espedita abiaraz dezala, 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 29.2, 34.3, 34.4 eta 39.4 artikuluetan ezarritakoaren arabera."

"i) Atender y tramitar, en su caso, las denuncias por incumplimiento de la normativa de transparencia, instando al órgano competente, si fuera necesario atendiendo a la gravedad de los diferentes supuestos y previo informe al respecto, la incoación de un expediente disciplinario, en los términos establecidos en los artículos 29.2, 34.3 y 4 y 39.4 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia

**BIGARRENA**. - Salaketa hau, ordea, ez da egiten gardentasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, baizik eta partikular batzuek Barrikako udalerriko lursail batean gertatu den legez kanpoko isurketa egin dela

**SEGUNDO**. - La presente denuncia, sin embargo, no se formula por un incumplimiento de la normativa en materia de transparencia, sino para poner en conocimiento de las autoridades la actuación



adierazten duen jarduketa bat agintariei jakinarazteko.

**HIRUGARRENA.** Bada, transkribatu dugun arautegitik ondorioztatzen da Batzorde honek ez duela eskumenik aurkeztutako salaketaz arduratzeko; izan ere, aplikatu beharreko arautegiaren urraketaren bat gertatu bada -ezagutzen ez dugun inguruabarra-, ez da inola ere gardentasunari buruzko araudia ez betetzea. Kontuan hartu behar da Batzorde honek ez duela eskumenik beste betebeharrak ez betetzeagatik aurkeztutako salaketei erantzuteko eta horiek izapidetzeko, ez partikularrenak, ez beste erakunde batzuenak, ez eta Bizkaiko Foru Aldundiaren beraren organoenak ere; beraz, salaketa hau Barrikako Udalari aurkeztu beharko zaio, edo, nolahi ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari.

Horregatik guztiagatik, ondorioztatu behar da bidezkoa dela

egindako salaketa izapidetzea ez onartzea, hirugarrenen ustezko legez kanpoko jarduketei buruzkoa delako, eta jarduketa horiek ez dutelako inolako loturarik Bizkaiko Foru Aldundiak dituen gardentasun-betebeharrekin.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzorde honek honako hau erabaki du:

#### EBAZPENA

**Lehenengoa.- EZ ONARTZEA**

aurkeztutako salaketa, Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen eskumenik ezagatik, salaketa hori Bizkaiko Foru Aldundiak gardentasunarekin

de unos particulares efectuando, al parecer, unos vertidos ilegales en una parcela del municipio de Barrika.

**TERCERO.** Pues bien, de la normativa que hemos transcrito se desprende la falta de competencia de esta Comisión para conocer de la denuncia presentada, toda vez que, de haberse producido algún incumplimiento de la normativa aplicable -circunstancia que desconocemos- no se trata en ningún caso de incumplimiento de la normativa de transparencia. Y es que esta Comisión carece de competencia para atender y tramitar denuncias presentadas por el incumplimiento de otro tipo de obligaciones ya sea de particulares, de otras instituciones o incluso de los órganos de la propia Diputación Foral de Bizkaia; por lo que la presente denuncia deberá formularse ante el Ayuntamiento de Barrika o, en todo caso, ante el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia.

Por todo lo cual, se ha de concluir que resulta procedente la inadmisión a trámite de la denuncia formulada por

, al referirse a supuestas actuaciones ilegales de terceros que en modo alguno están relacionados con los deberes de transparencia a los que está sujeta la Diputación Foral de Bizkaia.

Por todo lo cual, esta Comisión de reclamaciones en materia de Transparencia, acuerda:

#### RESOLUCIÓN

**Primero.- INADMITIR** la denuncia formulada por

, por incompetencia de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia, al referirse dicha denuncia a supuestas actuaciones ilegales de terceros que nada



zerikusirik ez duten betebeharrak ustez ez betetzeagatik izan baitzen.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, erabaki hau hartzeko oiunarriztat hartu den txostenarekin batera.

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau jakinaraztea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Modernizazio, Gobernu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari.

Ebazpen hau behin betikoa da; administrazio-bidea amaitu da, eta, horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, EAeko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta jardueraraudia onesten duen uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren 27. artikuluan eta administrazioarekiko auziak arautzen dituen jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/98 Legearen 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin ados egonik.

tienen que ver con los deberes de transparencia a los que está sujeta la Diputación Foral de Bizkaia.

**Segundo.-** Notificar esta resolución a la interesada, acompañada del informe que la motiva.

**Tercero.-** Comunicar esta resolución a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia del Departamento Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.